



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Lapurra erretzen denean

Argia ustekabeen amata-tatu da eta plastiko erre usain batek hartu du gela. Sarrik esango luke ustekabeen amata-tzen dela argia beti, baina hamaika gailu entxufaturik dituen erregletari erreparatuko bage-nio, ikusiko genuke denbora bat da-ramala lapurrak animaleko tentsioa jasaten, eta halako batean, beroaren beroaz, plastikoa urtu eta kortozir-kuitua gertatu dela azkenik. Hori bai, akzidentea jazo eta ustekabeen ilun-petan gelditu garenean, ohartu gara gure ahalmen eta borondateak ener-giaren jaunen mende daudela, eta bi aste iragan direnerako, haur ukrai-niarrak baino larriagoak dira gas, olio, gasolio eta argindarraren pre-zioak. Kuriosoa da, baina gure de-pendentzia energetikoa agerian gel-ditzen denean, inork ez du fokua dependentzian jartzen, eta are gu-txiago seinalatzen, munduan ba-rreiaturik diren hamaika gudei esker ari garela gozatzen gure kontsumo gaitasun animaleko eta nazkaga-rriaz.

Jakina, lapurrak ez gara gu, gure agintariak baizik. Japoniako Uniber-tsitatean egin berri den ikerketak agerian utzi du BP, Chevron, Exxon-Mobil eta Shell konpainiek ez dutela azken 12 urteotan energia berderako trantsiziorik egin. Atmosferara 1965etik isuri den karbono dioxidoa-ren %10 lau konpainia hauen ardura da, eta finantza datuek erakusten dutenez, haien negozioek erregai fos-silen mende jarraitzen dute. Hemen ere, urtebetean 2.300 milioi euroko irabazi netoa zuen Muskizko enpre-sak 80 inbertitu nahi zituen lau urte luzetan, karbonoan neutroak izango ziren 50 barril/egun ekoizteko, Pe-tronorrek 220.000 ekoizten dituenen-an, duela bi urte "Gaur da eguna" ar-tikuluaz azaltzen nuenez. Iruzurra

agerikoa da, baina deabruak ekialde-koak izaten jarraitzen dute.

Ilunetan gabiltza, eta ez dakusagu alternatibarik. Duela 20 urte karre-ran nintzela, hiru aurrerapen tek-nologiko "iraultzaile" aipatzen zi-tzaizkigun: ordenagailu kuantikoa, giro-tenperaturako supereroaleak (bateria gisa) eta fusio nuklearra energia lortzeko. Lehen bietan nahiko aurrepauso ikusi izan ditut, nahiz eta arazoak oraindik nagusi di-ren, baina hirugarrena beti izan da panazea moduko bat. Teknikoki oso zaila omen fusioa emateko masa kri-tikoa biltzea, ez dut ukatzen, baina kapitalismoaren erdian, itsasoko urez elika daitekeen energia iturri handi, seguru eta garbia lortzea, nork demontre sustatu behar du? Ja-kina, badira ikerketak eta fusio erre-aktore esperimental batzuk. Hain

zuzen, horietako batek, Oxforden (Ingalaterran) dagoen JET erreaktore-ak, fusio nuklearrak inoiz lortutako energia ekoizpenik handiena eskura-tu du (59 megajulio). Ia hirukoiztu egin du aurreko marka eta 5 segundo luzez mantendu dute ekoizpen tasa. Orain arte, inongo erreaktorek ez du lortu sartutako energia baino gehia-go ekoiztea, ezta honek ere, baina ITER delakoan lor daitekeela iradoki-tzen dute ikerlariak. Imajinatzen al duzue energia menpekotasun eta la-purreta gabeko mundurik?

[...]

Eskerrak ilunbeak ditugula, argirik oraindik ez badugu.

Ilunbetan bizitzen ikasi arte ez dugu argi bizitzen jakingo.

Joseba Sarrionandia (Iluntasuna Neurtzen). •



Gure dependentzia ekonomikoa agerian jartzen denean, fokua ez da dependentzian jartzen. GAUR8